

2

0

DK

Jaialdia
DKLUBA

2

1

Jaialdia DKLUBA

Dkluba programa emanaldi-zirkuitu bat da, helburutzat auzoetako musika-eskaintza dinamizatzea duena, nola eta tokian tokiko banda berriak bultzatuz eta artista ezagunak ekarriz. Oinarrian, arlo publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzat, komertzialak ez bezalako proposamenak programatzeko eta tokian tokikoa balioesteko (hala musika-taldeei nola kolektibo, klub, sustatzaile eta elkarteei dagokienez). Azken batean, Dklubak modu naturalean lortu nahi du programazio-erreferente bat izatea bertako talentuarentzat eta musika-emanaldien zirkuituentzat.

Horren adibide izan zen aurreko urtean bertako klubekin egindako akordioari jarraipena ematea, diruz laguntzeko zirkuitu pribatuko programazioari. Osasun-neurriak zirela-eta egindako edukiera-murrizpenek aretoen jarduna zigortu zuten, eta arriskuan jarri zuten areto ezagun batzuen jarraipena, hala nola **Doka, Dabadaba, Altxerri, Bataplan, iBe!Club** eta beste batzuenak.

Areto horien iraupenak hiriko kultur ekosistemarako duen garrantziaz oharturik, eta bertako eszena bizirik edukitzeko helburuz, **Dklubak 63 kontzertu antolatu zituen areto horiekin 2021ean, eta 4.500 ikus-entzule etorri ziren haietara.**



Egoera hain ohiz kanpokoak izanik, zuzeneko musikaren zaleek suharki erantzun zuten berriro, nahiz eta edukierak mugatuak izan eta eserita egon behar. Zirkuituak programazio eklektikoa hartu zuen, eta han izan genituen, besteak beste, **Rüdiger, Ofunkillo, Manolo, Kabezabolo, Los Estanques, Willis Drummond, Elena Setién...**

Urtea baikor hasi genuen, pentsatuz udan osasun-egoerak hobera egingo zuela, baina abelera oso aldakorra zen, eta ezin izan ziren berriro antolatu urteroko jaialdi jendetsu batzuk, hala nola **Musikaren Eguna**, Loiola kalean, **Glad is the Day**, Cristina Enea parkean, eta **Musikagela Fest**, erdialdean egitekoa zena.



Noa & The Hell Drinkers & Friends

Intxaurrondo K. E.ari dagokionez, **Dklubaren** agertoki nagusia baita, 2021a hilean kontzertu bat eskainiz hasi zen. Urtarrilean, **Gari & Maldanbera** izan ziren, eta otsailean **Noa & The Hell Drinkers & Friends**, eta bi-biek erakarri zuten jendetza handia. Apirilean, berriz, **XI. Musikagela Weekend** jaialdia inoiz baino bertakoagoa izan zen, **Mihise** usurbildarrak izan baitziren kartelburu. Nordikaren 10. urteurrenean, oster, **Juárez** iruindarrek jo zuten. Maiatzean, aretoak **Revolution JamRock Biziriken** lehen jardunaldia hartu zuen, eta ekainean **Bruma** madrildarrak, **Musikaren Eguna** zela-eta.





Chill Mafia

Udaren ondoren, gitarra-birtuosoak etorri ziren: **Twanguero** irailean eta **Joseba Irazoki eta Lagunak** azaroan, **Revolution JamRocken** bigarren jardunaldian hain zuzen ere. Azaroan, berriro egin ziren zutikako kontzertuak, urte eta erdiren ondotik.

Urteari modu handiosean agur esateko, abendura atzeratutako **Donostikluba** jaialdia, zeinean une honetan den bandarik lotsagabeena izan baitzen: **Chill Mafia**. Bi urtez edukiera murriztuak eta eserleku behartuak izan ondoren, aretoak berriro jarri zuen "Sarrerarik ez" kartela, edukiera bere osoan zela, Covid-19 pasaporteak eskatu zen lehen asteburuan.

